



NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI

Dabid Anaut Peñak, EH BILDU NAFARROA Parlamentuko Taldeko parlamentariak, Ganberako Araudiak adierazten duen bezala, ondoko **Galdera idatzia** egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Zioen azalpena

2016ko azaroaren 10ean Nafarroako Parlamentuak egindako osoko bilkuran, Nafarroako errepideetan aldatu eta euskaraz nahiz gaztelaniaz jarri behar ziren errotuluei buruzko galderari emandako erantzunean, Manu Aierdi Kontseilariak honakoa esan zuen hitzez hitz: “Los trabajos van a llevarse a cabo mediante la contratación de los mismos, según los procedimientos ordinarios regulados en la Ley de Contratos, de tal forma que es previsible que se lleven a cabo durante los primeros meses del año que viene”.

Beraz, Garapen Ekonomikoko Kontseilariaren arabera, garai hartan eremu ez-euskaldunean zeuden 45 errotuluak egokitzeko asmoa zegoen, eta 2017ko lehendabiziko hilabeteetan aldatu behar ziren. Urteak aurrera egin du, ordea, eta 2017ko irailaren hasieran 45 errotulu horiek, edo horietako asko aldatu edo egokitu gabe daude

.- Kontseilariak aipatutako 45 errotulu horietatik, zenbat dira dagoeneko aldatu direnak? Gainerakoei dagokionez, zergatik ez dira aldatu oraindik? Noizko aurreikusten du Garapen Ekonomikoko Departamentuak errotulu horiek guztiak aldatuta egonen direla?

Iruñean, 2017ko irailaren 28an

Sin.: **Dabid Anaut Peña.**

X

(Traducción del escrito que lleva el número 3005 de entrada en el Registro)

A LA MESA DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

DABID ANAUT PEÑA, parlamentario foral adscrito al grupo parlamentario EH BILDU Nafarroa, al amparo de lo dispuesto en el Reglamento de la Cámara, presenta la siguiente pregunta, para su contestación por escrito por el Gobierno de Navarra:

Exposición de motivos

En sesión plenaria celebrada por el Parlamento de Navarra el 10 de noviembre de 2016, el Consejero Manu Aierdi respondió en los siguientes términos a la pregunta sobre los rótulos de las carreteras navarras que se iban a modificar para que figurasen tanto en euskera como en castellano: "Los trabajos van a llevarse a cabo mediante la contratación de los mismos, según los procedimientos ordinarios regulados en la Ley de Contratos, de tal forma que es previsible que se lleven a cabo durante los primeros meses del año que viene".

Así pues, según el Consejero de Desarrollo Económico, existía la voluntad de adaptar los 45 rótulos entonces existentes en la zona no vascofona, y se preveía que esa labor se acometiese en los primeros meses del año 2017. Pues bien: el año ha ido transcurriendo, y a comienzos de septiembre de 2017 esos 45 rótulos, o muchos de ellos, siguen sin ser modificados o adaptados.

- De los 45 rótulos mencionados por el Consejero, ¿cuántos han sido modificados ya? En cuanto a los demás, ¿por qué siguen sin modificarse? ¿Para cuándo prevé el Departamento de Desarrollo Económico que todos esos rótulos estén modificados?

En Pamplona, a 18 de septiembre de 2017

Firmado: Dabid Anaut Peña

GRUPO PARLAMENTARIO EH BILDU NAFARROA